



Euskal artzainek denbora eman dute Amerikako mendietan nola bizi izan diren aitortzeko

1920ko hamarkadan hasi ziren lehenak Amerikara joaten. Gehienak Argentinara joan ziren

zioa 50eko hamarkadako izan da. Euskal Herriko eskualde batzuetan, etxeak bat-batean hustu zirelako, haurrek, hazi orduko, Amerikara joateko asmoa zutelako.

«Aldudeko etxe batean, zazpi haurride joan ziren garaian», ohartarazi du Urretrek. «Bizkaia eta Baxenabarreko probintziak izan dira hunkituenak». Ez da, beraz, harritzekoa Alduden eta Gernikan egiten baldin bazaie omenaldia. Mila artzainetarik, erdiak bizkaitarrak ziren. Ipar Euskal Herrian 200 bat kontatu dituzte, eta besteak nafarrak.

Omenaldiaren kariatara, bi oroitarri, bat Aldudeko, bestea Gernikako, eraikiarazi dizkiete Susperregi aita-semei, eta Daniel Xalbadorrek kantu bat idatzi du. Lepokoak eta diplomak banatuak izanen dira, *Ohore zuri Euskal Artzaina* leloarekin.

Badirudi ohorea bakardadearen ahazteko erremedio bakarra dela. Edo sufritu duten artzainen mintzarazteko aukera dela. «Amerikatik itzultzean, ez dute erran zenbat sufritu duten. Euskal gizarte osoa beren zepoan sarrarazi dute, eta denek ahanzi ditugu euskal artzainak», ohartarazi du Urretrek. Eta ez du aspaldi hitz egiten hasiak direla artzain horiek. Gaby Etxebarneren liburua *Paroles de Bergers*, artzainen hitzak, anitz gauza adierazi ditu.

«Baina ni segur naiz oraindik anitz gauza badituztela guri kontatzeko», erran du Urretrek. «Euskal artzainak ikuspegi hobe merezi du, Euskal Herriko historiaren parte garrantzitsua da». Lotsa gainditzeko unea etorri da, hainbeste urte pasatu dira eta. 1930ean, Gregoire Iturriak hitz hauek zizelkatu zituen Kaliforniako zuhaitz batean: «Tranpa gorria, hunarat etorria, untsa urrikitia, fitesko hustu behar tokia».

XAN AIRE
Baiona

Euskal Herriko enbaxadore hoberenak izan dira. Hala diote Artzain Mundua elkarteko kideek. Ameriketara ibili diren euskal artzainak omenduak izanen dira heldu den asteburuan, Baigorri, Alduden (Baxenabarre), eta Gernikan. Zeremonia, diploma, oroitarri eta guzti. Euskal artzainak aipatuta, gizon zuzenak, leialak eta langileak direla erraten da anitzetan.

«Euskal gizarteak luzaz ahanzi ditu euskal artzainak». Ttale Urret artzaina da bera ere, eta omenaldiaren antolatzaile bat. Euskal artzainek denbora eman dute Amerikako mendietan nola bizi izan diren aitortzeko. Mila, edo bi mila buruko artalde bat zaindu behar. Haritzak, koioteak ardiak harrapatu nahian. Hotza, gosea. «Eta bakardadea. Nik uste hori izan den artzainen etsairik handiena».

Artzainen emigrazioa Euskal Herriko historiaren parte garrantzitsua da. 1920ko hamarkadan hasi ziren lehenak Amerikara joaten. Gehienek Argentinako bidea hartu zuten, eta Estatu Batuetan pausatzen ziren besteak. Baina historia gehienik markatu duen emigra-

Amerikan ibili diren euskal artzainak omenduak izanen dira datorren asteburuan Alduden eta Gernikan. Urte zailak gogoratzeko eta artatzeko aukera.



Artzainak, Arizonan. **BERRIA**



Nevadan ere izan ziren artzainak. **BERRIA**



Asko Kaliforniara joan ziren. **BERRIA**